



DATU PERTSONALAK BABESTEKO DEKALOGOIA

1 GOGOAN IZAN DATUAK PERTSONENAK DIRELA

Datu pertsonalak (pertsonei buruzko zenbakizko informazioa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa nahiz akustikoa) nori buruzkoak diren horiek dira datuen jabeak, eta haiek bakarrik har ditzakete datuen gaineko erabakiak. Beraz, zu ez zara datu horien jabea, ez eta zure zerbitzua edo saila ere.

2 HASTEKO, EGIAZTATU EA FITXATEGIA SORTUTA DAGOEN

Hasteko, egiaztatu behar duzu ea fitxategia sortuta dagoen, ea Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta dagoen eta ea tratamendu kontrolatzailearik eta segurtasun arduradunik dagoen, horiek argitu behar baitituzte zure zalantzak.

3 INFORMATU ETA ADOSTASUNA ESKATU

Herritarrei datu pertsonalak eskatzen dizkiezunean, fitxategia dagoela jakinarazi behar diezu, fitxategiaren helburua azaldu eta abar. Hori egiteko, prestatuta dauden inprimakiak erabili behar dituzu. Zenbaitetan, gerta daiteke berariazko adostasuna eskatu behar izatea herritarrari bere datuak tratatu ahal izateko.

4 DATU EGOKIAK, BEHARREZKOAK ETA NEURRIKOAK BAKARRIK ESKATU ETA TRATATU

Datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak izan beharko dira, bilketaren helburua kontuan hartuta.

Ezin duzu datu pertsonalik erabili, datuak biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren beste helburu batzuetarako badira.

5 BETE SEGURTASUN NEURRIAK

Zure betebeharra da datu pertsonalen babesaren arloko segurtasun araudia betetzea. Ez badizute araudia eman, segurtasun arduradunari eskatu behar diozu. Ez ahaztu:

- Pasahitzak erabiltzea eta inorekin ez partekatzea.
- Datu pertsonaldun espedienteak edo zerrendak armairuetan gordetzea. Bertan ez zaudenean, armairuak itxi egin beharko dituzu.
- Datu pertsonalak baimenik gabeko pertsonen begi bistatik babestea (kontuz fotokopiagailuetan, inprimagailuetan, faxetan edo mahai gainean uzten dituzun dokumentuekin).
- Segurtasun neurriak betetzea datuak eramaten badituzu USB memorietan edo bestelako euskarrietan.

6 “AZETA” ESKUBIDEEZ BALIATZEKO ERRAZTASUNAK EMAN DATUAK UKITZEN DITUZTEN PERTSONEI

Datu pertsonalen titularrari erraztasunak eman behar dizkiozu Atzitzeko, Zuzentzeko, Ezereztzeko eta Aurka egiteko eskubideez baliatzeko. Gai izan beharko duzu azaltzeko nola erabili behar dituen eskubideak eta horretarako inprimakiak eman beharko dizkiozu.

7 BETE ZURE SEKRETU GORDE BEHARRA

Zuhurtziaz eta sekretuz jokatu beharko duzu zure ohiko eginkizunetan ari zarela atzitzen duzun edozein informazio dela eta. Horrela jokatu behar duzu hala agintzen dutelako datuak babesteko araudiak, funtzionarioen estatutuak eta oinarrizko jokamolde etikoak. Zenbaitetan, ez betetzeak jazarpen penala ekar dezake.



8 EZ LAGA DATURIK BAIMENIK GABE

Ez laga sekula datu pertsonalik administrazioei, entitateei edo partikularrei tratamendu kontrolatzailearen edo segurtasun arduradunaren baimenik gabe.

9 EGIAZTATU EA KONTRATURIK DAGOEN ZURE ADMINISTRAZIOARENTZAT LAN EGITEN DUTEN ENPRESEKIN

Kontratuen bidez zure erakundearentzat lan egiten duten enpresei edo entitateei (informatika, segurtasuna garbitasuna, posta banaketa, ...) datu pertsonalak eman aurretik, egiaztatu ezazu datu horien gaineko konfidentzialtasun betebeharra eta bestelako betebeharrak ezartzen dizkien kontratu bat dagoela izenpetuta.

10. DATUAK BEHAR BEZALA EZEREZTU, BEHARREZKOAK EZ BADIRA

Datuak ezereztu egin beharko dituzu, ez badira beharrezkoak eta bereizleak hasierako helbururako. Zenbaitetan, datuak ezereztu aurretik blokeatu egin beharko dira, hau da, tratamendua eragotzi beharko da eta kasu jakin batzuk gertatzen direnean bakarrik utzi datuak atzitzen.

Paper euskarrian dauden datu pertsonalen fitxategiak suntsitzeko, papera txikitzeko makinak edo zure erakundeak erabakitako sistema segurua erabili.